

Ekin diote ikasturteari Hezkuntza erdi presentzialeko eta online modalitateetako ikasleek

2014/10/01

Ekin diote 2014-2015 ikasturteari erdi presentzial eta *online* modalitateak aukeratu dituzten Hezkuntzako ikasleek. Kurtsoak *online* edo erdi presentzialak izan arren, lehenego egunetan aurrez aurreko harrera izan dute ikasle berriek Eskoriatzako campusean. Inoizko ikasle kopuru handienak aukeratu du modalitate erdi presentziala.

Urtetik urtera sendotuz doa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen erdi presentzial edo *online* modalitatearen eskaintza. Hala, ikasturte hasi berri honetan, inoizko matrikulazio kopuruak lortu dituzte Hezkuntza erdi presentzialeko hiru eskaintzek, hala nola irakasleentzako gradurako egokitze kurtsoak, bigarren aipamenek eta gradu osoa *online* egiteko aukerak.

Esaterako, gradurako egokitze kurtsoan (lehengo diploma, gradu berria bilakatzea), 29 ikaslek egin dute matrikula. Hezkuntzan bigarren aipamen edo gradu bat lortzeko ikastaroetan, aldiz, 85ek. Azkenik, zazpi ikaslek egingo dute Hezkuntza gradu osoa *online* eran.

Bestalde, gradu mailako *online* ikasketekin batera, hasi ziren eskolak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaintzen dituen unibertsitate masterretan.



Erdi presentzial modalitateko ikasleen harrera saioa.